

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HIGIENE-, DEPILAZIO- ETA MAKILLAJE-ZAINKETA ESTETIKOETARAKO KOSMETIKOAK ETA EKIPOAK	Iraupena	60
		Baldintzatua	
Kodea	UF0086		
Lanbide-arloa	IRUDI PERTSONALA		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Higiene-, depilazio- eta makillaje-zerbitzu estetikoak.	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Segurtasuna eta osasuna higiene-, depilazio- eta makillaje-zerbitzuetan	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Aurpegiko eta gorputzeko diagnostiko estetikoak	Iraupena	60

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0354_2: HIGIENE-, DEPILAZIO- ETA MAKILLAJE-ZERBITZU ESTETIKOKO BEZEROARI SEGURTASUN-, OSASUN- ETA HIGIENE-KONDIZIOETAN ARRETA EMATEA gaitasun-ataleko LB3, LB4, LB6 eta LB7 lanbide-burutzapenekin

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Aurpegiko eta gorputzeko higiene-tekniketan, makillaje sozialean, depilazio fisikoan eta dekolorazioan erabiltzen diren kosmetikoen ezaugarriak kosmetikoen efektuekin erlazionatzea.

EI1.1 Erabiltzen diren kosmetikoen oinarriko konposizioa azaltzea, osagaien funtzioak arrazoituz.

EI1.2 Erabiltzen diren kosmetikoen jardura-mekanismoan dituzten efektuak.

EI1.3 Kosmetikoak funtzioaren arabera sailkatzea.

EI1.4 Erabiliko diren kosmetikoak haien konposizioaren eta ekintzaren arabera eta erabiliko den teknikaren eskakizunetara, larruazalaren ezaugarrietara eta bezeroaren egoerara egokituz hautatzeko irizpideak azaltzea.

EI1.5 Hala behar duten kosmetiko eta produktuak manipulatzeko oinarriko eragiketa fisiko-kimikoak trebetasunez egitea.

EI1.6 Kosmetikoen konposizioa alda dezaketen edo haien konposizioan eragin dezaketen ingurune-kondizioak zein diren adieraztea, eta behar bezala manipulatzeko eta kontserbatzeko jarraibideak zehaztea.

EI1.7 Makillaje sozialerako kosmetiko apaingarriak aukeratzean koloreak nola eragiten duen azaltzea.

A2: Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikak, makillaje soziala, dekolorazioa eta depilazio fisikoa egiteko aparatu, tresna, material eta gehigarri egokiak aukeratzeko irizpideak ezartzea.

EI2.1 Aurpegiko eta gorputzeko higiene-teknikarako, makillaje sozialerako, dekoloraziorako eta depilaziorako eskakizun teknikoak eta materialak zehaztea.

EI2.2 Aurpegiko eta gorputzeko eta depilazio fisikoko tekniketan erabiltzen diren tresnen eta aparatuen efektuak, erabilerak eta kontraindikazioak adieraztea.

EI2.3 Aurpegiko eta gorputzeko higiean eta hidratazioan eta depilazio fisikoan erabiltzen diren aparatuen parametroak programatzeko irizpideak azaltzea.

EI2.4 Aurpegiko eta gorputzeko higiene-tekniketan eta depilazio fisikoko tekniketan erabiltzen diren aparatuak behar bezala erabiltzeko eta kontserbatzeko jarraibideak adieraztea.

A3: Aurpegiko eta gorputzeko higiene-tekniketan, makillaje sozialean eta depilazio fisikoan erabiltzen diren instalazioak eta baliabide teknikoak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko metodoak aztertzea, eta segurtasun eta higiene pertsonaleko baldintzekin erlazionatzea.

EI3.1 Instalazioak eta baliabide teknikoak tratatzeko egokiak diren garbitzeko, desinfektatzeko edo esterilizatzeko metodo egokiak deskribatzea, materialen ezaugarriak, haien erabilera eta kontaminatzaile-mota ohikoak kontuan hartuta.

EI3.2 Tresnak eta aparatuak zer baldintzetan garbitu, desinfektatu eta esterilizatu behar diren zehaztea, metodo, denbora eta behar diren produktuei dagokienez.

EI3.3 Zer tresna desinfektatu edo esterilizatu behar diren finkatzea.

EI3.4 Behin soilik erabiltzekoa den materiala segurtasun-baldintzak betez botatzea.

EI3.5 Aurpegiko eta gorputzeko higiene-prozesuetan, makillaje sozialean eta depilazio fisikoan osasunerako arriskuen prebentzioa bermatuko duten babes-neurriak aplikatzea.

EI3.6 Aurpegiko eta gorputzeko higiene-tekniketan, makillaje sozialean, dekolorazioan eta depilazio fisikoan erabiltzen diren aparatu edo produktu kosmetikoak aplikatzean istripurik gertatuz gero, lehen laguntzako zer neurri hartu behar diren azaltzea.

- A4: Zainketa estetikoak aplikatzean istripuren bat gertatuz gero edo erreakzio kaltegarriren bat egonez gero, azaltzea lehen laguntzako zer teknika aplikatu behar diren.
- EI4.1 Jarduera-protokolo bat egitea zainketa estetikoak aplikatzean erreakzio kaltegarriren bat gertatuz gero jarraitu behar diren arauak jasotzeko.
- EI4.2 Elektroestetikako eta depilazio mekanikoko ekipoak aplikatzean jarraitu beharreko segurtasun-arauak detektatzea eta aztertzea.
- EI4.3 Osasun-zentro batera eramateko, pertsona batek zer zeinu eta sintoma adierazi behar dituen deskribatzea.
- A5: Zerbitzuaren kalitatea kontrolatzeko prozedura egokiak aplikatzea.
- EI5.1 Identifikatzea aurpegiko eta gorputzeko higiene-tekniketan, makillaje sozialean, dekolazioan eta depilazio fisikoan zer alderdi ebaluatu behar diren zerbitzuen kalitatea eta bezeroaren gogobetetze-maila zehazteko.
- EI5.2 Lortutako emaitzetan aurreikusitako emaitzekiko gertatutako desbideratzeak detektatzea eta aztertzea.
- EI5.3 Zerbitzuan hutsuneak eragin ditzaketen kausa teknikoak edo bezeroarenganako arreta pertsonalekoak zerrendatzea.
- EI5.4 Zerbitzuko hutsuneak zuzentzeko eta emaitzak optimizatzen neurriak proposatzea.
- EI5.5 Higiene-, depilazio- eta makillaje-zerbitzu estetikoetan arriskuak prebenitzeko eta ingurumena babesteko zer arau aplikatu behar diren deskribatzea.

Edukiak

1. Kosmetikari buruzko sarrera

- Kosmetikoaren definizioa.
- Kosmetiko baten osagaiak: printzipio aktiboak, eszipientea edo garraiatzailea, gehigarriak, zuzentzaileak.
- Forma kosmetikoak: Lozioak. Emultsioak. Gelak. Hautsak. Maskarak. Barrak. Euskarri blaituak. beste batzuk.
- Zainketa estetikoetan erabiltzen diren kosmetikoen sailkapena:
 - Higiena.
 - Mantentzea eta babestea.
 - Apaingarriak.
 - Alterazio estetikoak zuzentzeko: depilatzeak, koloregabetzeak, eta beste.

2 Higiene-, hidratazio-, makillaje- eta depilazio-tekniketan erabiltzen diren kosmetikoak:

- Aurpegiko eta gorputzeko higiene- eta hidratazio-kosmetikoak: Emultsioak. Xaboiak. Gelak. Maskarak. beste batzuk.
- Kosmetiko esfoliatzaileak: fisikoak, Kimikoak.
- Kosmetiko hidratatzaileak eta suspergarriak: Emultsioak. Maskarak. Fluidoak. Gelak.
- Larruazala mantentzeko eta babesteko kosmetikoak.
- Kosmetikoak larruazal-motaren arabera aukeratzeko irizpideak.
- Elektrostatika aplikatzeko erabiltzen diren kosmetikoak.
- Konposizioa, aktibo kosmetikoak, jarduera-mekanismoak, propietateak, erabilerak, kontuan hartu beharrekoak eta kontraindikazioak.
- Kosmetiko apaingarriak:
 - Oinarri akats-zuzentzaileak, oinarri-makillajea, hautsak, akats-zuzentzaileak, koloreteak eta beste batzuk.
 - Begiak makillatzeko kosmetikoak.
 - Ezpainak makillatzeko kosmetikoak.
 - Konposizioa eta forma kosmetikoak.
- Makillatzeko kosmetikoak hautatzeko irizpideak.
- Aurpegiko eta gorputzeko ilea depilatzeak eta koloregabetzeak kosmetikoak:
 - Depilatzeak argizariak: motak, konposizioa, forma kosmetikoak eta erabilerak.
 - Argizari hotzak, epelak eta beroak.
- Ilearen hazkuntza atzeratzekoak.
 - o Ilea koloregabetzeak.
- Depilatzeak eta koloregabetzeak kosmetikoak hautatzeko irizpideak.
- Kosmetikoek eragindako erreakzio kaltegarriak: intolerantzia, alergia.
- Kosmetikoen kontserbazioa eta biltegiatzea. Inguru-kondizioak: argia, hezetasun-maila, giro-tenperatura.
- Hondakinak tratatzeko arauak.

3 Aurpegiko eta gorputzeko higiene- eta hidratazio-zainketetan erabiltzen diren aparatuak eta tresnak:

- Aurpegiko eta gorputzeko higiene- eta hidratazio-zainketetan erabiltzen diren aparatuak eta tresnak: belakiak, ateragailuak, brotxak, pintzak, eskuilak, ontziak eta beste batzuk.
- Aurpegiko eta gorputzeko higiene- eta hidratazio-zainketetan erabiltzen diren aparatuak:
 - Ozono-lurrina sortzen duten aparatuak. Erradiazio infragorriak sortzen dituen lanpara.
 - Dutxa eta langarretagailu epelak eta hotzak. Bentosak.
 - Eskuila birakariak. bibragailuak,

- Korrante zuzenak eta maiztasun handikoak. Esterilizatzaileak. beste batzuk.
- Oinarri zientifikoak eta aukeratzeko eta aplikatzeko irizpideak.
- Efectuak, erabilerak, kontuan hartu beharrekoak eta kontraindikazioak.
- argizari bero eta epelaz depilatzeako ekipoak: urgailuak eta berogailuak. Motak, erabilerak, kontuan hartu beharrekoak eta kontraindikazioak.

4 Higienea, desinfekzioa, esterilizazioa, segurtasun-neurriak eta lehen laguntzak:

- Higienearen, desinfekzioaren eta esterilizazioaren kontzeptua.
- Estetika-zentro bateko instalazioetako, tresnetako eta materialetako kontaminatzaile-mota ohikoenak.
- Mikroorganismoen sailkapena.
- Organismoak infekzioen aurrean dituen defentsa-sistemak. Kutsatzea eta prebentzioa.
- Aurpegiko eta gorputzeko higie-neurriak, makillaje sozialean eta depilazio fisikoan erabiltzen diren tresna eta baliabide teknikoei aplikatutako garbiketako-, desinfekzio- eta esterilizazio-metodoak.
- Teknika estetikoetan erabiltzen diren aparatuek eta produktuak maneiatzeko segurtasun- eta higie-neurriak.
- Osasunerako arriskuak prebenitzeko bezeroa eta profesionala babesteko neurriak.
- Edergintza-areto bateko istripurik ohikoenei aplikatzen zaizkien lehen laguntzak.
- Jarrera-higie-neurriak.
- Indarrean dagoen estetika-zentroetako guneei, instalazioei eta aparatuei buruzko araudia.

5 Higie-neurri-, hidratazio-, depilazio- eta makillaje-zerbitzu estetikoaren ebaluazioa eta kalitate-kontrola:

- Kalitatearen kontzeptua.
- Aurpegiko eta gorputzeko higie-neurriak, makillaje sozialeko, depilazio fisikoko eta ile-dekolorazioko zerbitzuen ebaluazioa eta kalitate-kontrola.
- Estetika-areto bateko zerbitzuaren kalitatea definitzen duten parametroak.
- Bezeroaren gogobetetze-maila neurtzeko teknikak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauekoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-erllo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatara sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagapenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

UF0085 gainditua izan behar du: Aurpegiko eta gorputzeko diagnostiko estetikoaren

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Higie-neurri-, depilazio- eta makillaje-zerbitzu estetikoak.